



MUSIKA

Soinu margoak eta paisaiak



KOLOREAK

HABI

ELKAR, 2020

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Leuntasuna eta indarra, intentsitatea. Erritmo eta giro aldaketak, paisaia eta kolore ugari antzeman daitezke Amasa-Villabonako (Gipuzkoa) Habi taldearen bigarren diskoko kantetan.

Tarteka, finak, delikatuak eta hunkigarririk diren doinuak entzun daitezke, dis-tirarekin, melodia politak. Beste pasarte batzuetan, berriz, soinu astindu bat senti daiteke, distortsioa, doinuak bortitzak baitira, gordinak, zaratatsuak. Ekaitza eta barealdia ederki uztartu dituzte.

Jon Ander Artolak oso ongi jotzen ditu erritmo lasaiak, biziak eta jostalariak, edo indartsuak eta sendoak, kolpe zehatzekin. Yeray Gasconek, bere alde-tik, ongi betetzen ditu kantak bere gitarraren akordeekin, marrazkiekin eta gainerako ñabardurekin, eta ongi janz-

ten ditu bere ahots berezi eta sentiberekin.

Kanten bidez, amildegia ertzetik ihes egiteko edo zulotik ateratzeko itxaropena eta nahia transmititzen dute. Estropezu bat egin edo kolpe bat jaso arren, altxatzeko gogoia, aurrera egiteko. Mina, desamodioa, heriotza... arazoei aurre egiteko kemena. Hori guztia barnetik adierazten dute, sentitzen duten moduan, eta autokritika ere egiten dute.

Loratu izenburu duen lehen diskoa iaz kaleratu zuten, eta disko horrekin bezala, lan berriaren grabazioa Elkar estudioetan burutu dute, Victor Sanchez soinu teknikari eta ekoizlearen gidaritzapean, eta emaitza oso ona izan da. Ekoizpen lan ona egin baitute, moldaketak eta xehetasunak arretaz landuta, denak bere tokian,

soberan egon daitekeen apaingarririk gabe, eta kantak garbi, ozen eta indartsu entzuten dira.

Koloreak lana CD eta binilo moduan argitaratu dute, Elkar argitaldaria-aren laguntzarekin. Eskuratzeko zailtasunak dituenak taldearen webgunearen bidez egin dezake (www.habi.eus).

Habi taldea arin ari da bere ibilbidea egiten. 2018an sortu zen, bi urte eska-sean bi disko osatu ditu, eta jendaurreko emanaldi mordoxka bat egin du hainbat herritan. Eta hasi besterik ez dira egin, musika grina handiarekin bizi eta egiten baitute. Horrela, lehen diskoarekin alderatuta, nabarmena da taldeak bere bidetara jarraituta urrats bat aurrera egin duela *Koloreak* diskoarekin, bai kantei bai ekoizpenari erreparatuta. ●